Parzelatu (L), ordenar, parcelar : *ordonner, ranger, cataloguer.* (??) IFERNUAN OHOINAK OHOIÑEKIN, ARNEGARIAK ARNEGARIEKIN, KIDEAK KIDEKIN EGONEN DIRA BEREZIAK ETA PARZELATUAK : en el infierno los ladrones estarán separados y ordenados con los ladrones, los blasfemos con los blasfemos, los colegas con los colegas : *dans l'enfer les voleurs seront séparés et placés avec les voleurs, les blasphémateurs avec les blasphémateurs, les compagnons avec les compagnons.* (Ax. 3ª-325-11.)

Parzuer (BN, S), socio, consocio : *associé, sociétaire.* (??)

Parzuergo (BN, S), alianza, sociedad : *association, société.*

Paša : 1° (AN-b, B-a-mond-o-tš), faja para envolver á los niños, *langes des enfants.* (??) (D. esp. *faja*?.) — 2° (AN-b), faja en general, *ceinture en général.* (??)

Pasaīlora (B-oñ?, G-azp?), comuña, pan bazo : *pain bis, pain de ménage.* Var. de BASAIĪLORA.

Pašaran (R-uzt), aranón, *prunelle.* Var. de BAŠAKARAN.

Pašera, presa en los riachuelos, *petite digue dans les ruisseaux.* (Duv. *ms.*)

Pašet, rodrigón, estaca : *pieu, échalas, perche.* (Duv. *ms.*)

Pasino-lora (*ms*-Lond), **pasione-lili** (S, Alth.), pasionaria, *passiflore.* (Bot.) (??)

Pasko (B,... G,...), Pascua, *Pâques.* (D. hebr. פסח, *pésaj.*) PASKO MAIATZEKO (Gc), Pascua de Pentecostés, *la Pentecôte.* PASKOZAPATU (Bc), PASKUALARUNBAT (G-and) : sábado de gloria, víspera de Pascua : *samedi saint, veille de Pâques.* GANDERALU HOTZ, NEGUA BOTZ; GANDERALU BEBO, NEGUA PASKOZ GERO : Candelaria fría, invierno alegre; candelaria caliente, el invierno después de Pascua : *Chandeleur froide, hiver joyeux; Chandeleur chaude, hiver après Pâques.* (Oih. *Prov.* 178.)

Paskoazko (Bc,...), precepto pascual, *précepte ou devoir pascal.* PASKOAZKOA ERAGIN BARIK BIALDU DABE MUTIL ANDIA MANIĪAKO PUNTARA (B-l) : sin hacerle cumplir el precepto pascual, le han enviado al chicarrón á un punto tan lejano como Manila : *sans lui faire accomplir le devoir pascal, ils ont envoyé ce grand garçon à un endroit aussi éloigné que Manille.*

Pasmau (Bc), gangrenarse, *se gangréner.*

PASMERO (B-o), estropajo para limpiar el horno : *écouvillon, torchon servant à nettoyer le four.*

PASMO (Bc), gangrena, *gangrène.* (?)

Pasmo-bedar (B), **pasmo-belar** (AN, G), cierta hierba medicinal parecida á la malva, *herbe médicinale qui ressemble à la mauve.* PASMO-BEDARRAK BEARKO DIRA ERAGOZTEKO PASMOA, se necesitarán hierbas medicinales para impedir la gangrena, *on a besoin d'herbes médicinales pour éviter la gangrène.* (*Per. Ab.* 65-5.)

Paso : 1° (AN-b), bofetada, *giffle.* — 2° (c,...), palabra del juego del mus y de la pelota : *passe, mot usité au jeu de mus et à la pelote.* (??)

PAŠOIN (BN-am), **pašot** (Lc), estaca de viña, rodrigón : *échalas, tuteur.*

PAŠOTA (L), estacada, *palissade.*

Pašotadura, acción de poner rodrigón á las plantas, *action de mettre des échalas aux plantes.* (Duv. *ms.*)

Pašotatu, enrodrigar ó poner rodrigones : *échalasser, planter des échalas.* (Duv. *ms.*)

PASTA : 1° (G), basta, aparejo de monturas : *bât, selle de certains animaux.* (?) — 2° (G-and), hilván, *faufilure.*

Pastagile (G-and), albardero, *bâtier.*

Pastajostorratz (G-bid-ond), aguja salmera, cierta aguja para hacer colchones : *carrelet, grosse aiguille à matelas.*

Pastana (AN-b, BN-ald), **pastanada** (BN-gar), **pastanaga** (S), **pastanagre** (L), zanahoria, *carotte.* (Bot.) (?)

Pasta-pasta (Sc), onomat. del acto de fumar en pipa, *onomat. de l'action de fumer la pipe.*

PASTE (R-uzt), lazada, *nœud coulant.*

PASTEĪLA : 1° (R-bid), hebra (de hilo), *aiguillée (de fil).* PASTEĪLAKA AĪLAKATAN DIEZ NIK ĪLE-ARIA, yo hago el ovillo por hebras, *je fais le peloton par aiguillées.* — 2° (R), cuenda, cordoncillo de hilo que recoge y divide la madeja para que no se enmarañe : *sentène, petite cordelette de fil avec laquelle on attache et l'on divise l'écheveau afin qu'il ne se mêle pas.*

Pastenagre (L), Var. de PASTANA, etc.

Pasteš (Sc), torta de maíz, *galette de maïs.* = D. fr. *pâtisse;* v. fr. *pastisse.*

PASTIKA, hediondo, *fétide.* (Har.)

Pastikadura, impaciencia, *impatience.* (Duv. *ms.*)

Pastikaldi, rato de impaciencia, *moment d'impatience.* (Duv. *ms.*)

Pastikarazi, impacientar, *impatienter.* (Duv. *ms.*)

Pastikarazle, el que impacienta, *celui qui impatiente.* (Duv. *ms.*)

Pastikatu (BN, Lc), impacientarse, fastidiarse, hastiarse : *s'impatienter, s'ennuyer, se dégoûter.* (??)

PHASTIO (Sc), lazada, *nœud coulant.*

Pastorratz (AN-lez), aguja salmera : *carrelet, grosse aiguille à sacs.*

Pastor-saku (*ms*-Lond), tlaspio, *thlaspi.* (Bot.)

PASU (R-uzt), **pasü** (Sc), seto, estacada : *haie, palissade.*

PAS̃U : 1° (AN), fajo, manojo : *fagot, javelle.* (??) BILDU LENIK ZALKEA ETA LOTU DEZATELA PAŠUKA EDO SORTAKA ERRETZEKO, ETA GARIA ERAMAN DEZATELA ALSISTURA : que recojan primero la cizaña y que la aten por fajos ó por carguillas y que lleven el trigo al granero : *qu'ils ramassent d'abord l'ivraie, qu'ils l'attachent par fagots ou par petites charges, et qu'ils portent le blé au grenier.* (Liz. 71-20.) — 2° **Pašũ** (Sc), estaca, *pieu.* — 3° (S ?), paso abierto á través de un seto, *passage pratiqué dans une haie.*

Phašuiñ (BN-am), estaca, *pieu.*

Pat (S), Var. de BAT, « uno, » aglutinado al diminutivo -ŠKOT : *Var. de* BAT, « *un,* » *agglutiné au diminutif* -ŠKOT. ALORŠKOT + BAT, ALORŠKOPAT, un campo pequeño, *un petit champ.* ZUBIŠKOT + BAT, ZUBIŠKOPAT, un puentecito, *un petit pont.* = Al tratar del acento en la Introducción se verá como el numeral BAT es, en S, un sufijo como el artículo A en toda la lengua. *En traitant de l'accent dans l'Introduction, on verra que le numéral* BAT *est, en S, un suffixe aussi bien que l'article* A *dans toute la langue.*

Paťa (AN-b), fruta, *fruit.* (Voc. puer.)

PATAKA : 1° (Duv. *ms*), torpe en hacer cualquier cosa, *maladroit pour faire quelque chose.* (D. fr. *patraque* ?.) — 2° (BN-s), patata, *pomme de terre.* (??)

Paťaka, algo torpe, *un peu maladroit.* (Duv. *ms.*) Dimin. de PATAKA (1°).

PATAL : 1° (B-m), balbuciente, tartamudo : *bégayant, bègue.* — 2° (B-i-m), pesado, tardo : *lourd, lent.*

Patan (B-a), menta, *menthe.* (Bot.) Var. de BATAN.

PATAR : 1° (AN-b, BN-s, L, R, S), cuesta escabrosa, *côte scabreuse.* ABARETA ORDEAN EZIN ERABIL DAITEKE PATARRETAN, mas este arado no se puede usar en las cuestas, *mais cette charrue ne peut être employée dans les côtes.* (Duv. *Labor.* 22-11.) BOTHA DITZAGUN MENDIAREN PATARRA BEHERA HEIN BURUEN GAINERAINO, lancemos cuesta abajo de la montaña (esas piedras) sobre sus cabezas, *lançons en bas de la montagne* (*ces pierres*) *sur leurs têtes.* (*Cant. de Altab.*) ZINTZURRA PATAR ETA TRIPA ORDOKI (L), la garganta escabrosa y el estómago como una llanura (se dice de un sano), *la gorge raboteuse et l'estomac comme une plaine* (*se dit d'une personne bien portante*). — 2° (B-a-mu), abandonado, desaseado : *souillon, guenipe, personne négligée.* — 3° (G-irur), licor fuerte, *liqueur forte.* Var. de PAITAR. DENBORAZ IZANGO NAIZ EMEN, ESKUPEKOA KOLKOAN ETA UPELA TŠIKI BAT PATARREZ BETEA BURUAN DETALA, con el tiempo me presentaré aquí teniendo propina (tesoro) en el seno y en la cabeza un barrilito lleno de aguardiente : *avec le temps je me présenterai ici avec une bourse* (*trésor*) *dans le giron, et sur la tête un barillet d'eau-de-vie.* (*Pach.* 64-2.)

PATARI : 1° (Bc, ...), alimaña, animal dañino : *carnassier, animal nuisible.* = Algunos, impropiamente sin duda, designan también con este nombre los insectos. *Quelques-uns, sans doute improprement, désignent aussi de ce nom les insectes.* ELTŠO BERENOTSUAK ETA BESTE PATARI ASKOK ZULATUTEN DITUEZALAKO EGITEN DABE AU, hacen esto porque los cínifes y otros muchos insectos los pican, *ils font cela parce que les cousins et beaucoup d'autres insectes viennent les piquer.* (*Diál. bas.* 42-4.) — 2° (B-o-oñ), ave de rapina, *oiseau de proie.* — 3° (G-iz), contrabandista, *contrebandier.*

PATARRAKA : 1° (BN-ist-s, L, R), alarido : *grand cri, clameur.* HIL ZEN PATARRAKAZ, ZIOELARIK : UTZI NAUTE JAINKOAK ETA GIZONEK : murió dando grandes gritos y diciendo : Dios y los hombres me han abandonado : *il mourut en poussant de grands cris et en disant : Dieu et les hommes m'ont abandonné.* (Hirib. *Eskaraz.* 14-22.) — 2° (L), zaragata, *fracas.* ORDU BEREAN BAZTERRAK IÑARRUSTEN DITU ŠISPAKOLPEN HARRABOTSAK, ETA MENDIKO OIHARTZUNEK ATZARTZEN OHIGABEKO PATARRAKEK : en el mismo instante el fragor de una descarga de fusilería conmueve los aires y esta inusitada zaragata despierta los ecos de la montaña : *au même instant l'air est ébranlé par un feu de peloton, et les échos de la montagne répètent ce fracas inconnu dans ces paisibles contrées.* (Dasc. *Atheka.* 98-5.)

Patarsu (AN, BN, L, R, S), escabroso, lleno de cuestas : *scabreux, accidenté.*

Patartu, dar pendiente : *faire pencher, donner de la pente.* (Duv. *ms.*)

PATAŠA (AN, Araq.), botella, *bouteille.*

PATASKA : 1° (B-b), ganchos de madera en que por dentro se atan las cuerdas de las velas, vulg. cornamusa : *crochets de fer qui se trouvent en dedans de la barque, et auxquels on attache les voiles.* — 2° (AN-b), masa, revoltillo, mezcolanza : *pâte, ramassis, billebaude.*

Pataskatu (AN-b), amasar, revolver, batir, mezclar : *pétrir, remuer, battre, mêler.*

Patatš (B, G), patache, cierta embarcación : *patache, sorte d'embarcation.* (??)

Patenoster (R), cuentas de perlas que llevan las Roncalesas al rededor del cuello : *patenôtre, collier de perles que les Roncalaises portent autour du cou.* (??) (D. lat. *Pater noster.*)

Pater šuri (S), bonetero de frutos blancos, *fusain à baies blanches,* « symphoricarpum. » (Bot.)

PATIN : 1° (B-a-g-m-mond-mu-o-tš), aljibe, cisterna, *citerne.* — 2° (R), antuzano de una casa, *petit espace de terrain qui se trouve devant la maison.*

Pato : 1° (B, G), hechizo, habilidad inexplicable : *sortilège, pouvoir inexplicable.* = D. esp. « pacto » con el diablo, *pacte avec le démon* ?. — 2° (S), testamento, pacto : *testament, pacte.* (??)

PATRAKA (L-ain), torpe para hacer las cosas, vestido sin gusto : *maladroit, mal nippé.* (D. fr. vulg. *patraque* ?.)

Patrakeria, mala figura dada á la obra : *bousillage, mauvaise façon [illegible] à l'ouvrage.* (Duv. *ms.*)

Patrakatu, atrabancar, dar mal sesgo á las cosas por torpeza ó poca voluntad : *bousiller, donner une mauvaise apparence aux choses par maladresse ou par mauvaise volonté.* (Duv. *ms.*)

PATS : 1° (AN-lez-oy, B-mond, Gc), orujo de [illegible], *marc de pommes.* — 2° (AN, G, L), **phats** (L), orujo de uva, *marc de raisin.* GEHIGIZAN BAN PATSA URIZTATZEN DA ETA BERRIZ PRENSAN EZARTZEN DA (G, *Diál. bas.* 104-12), el orujo que queda se rocía y se vuelve á poner en la prensa, *on arrose le marc qui reste et on le remet à la presse.* BALINBADA SAGAR-PHATSIK EDO MAHATS-PHATSIK, BAZKARI EMATEN ZAYO ETA NAHASTEKATZEN : si hay orujo de manzana ó de uva, se le agrega y se mezcla al pienso : *s'il y a du marc de pomme ou de vin, on l'ajoute et on le mêle à la pâture.* (Duv. *Labor.* 58-29.) — 3° (ANc, ...), gotas grandes (de sudor), *grosses gouttes* (*de sueur*). IZERDI-PATSETAN (AN-arak-lez-oy), IZERDI-PHATSETAN (Duv. *ms*), sudando á mares, *suant en nage.*

PATŠADA (AN-b-lez, Bc, BN, G, L, S), **phatšada** (Duv.), cachaza, pachorra : *flegme, calme, sang-froid.* PATŠADAN ZAUDE, está usted cómodamente, *vous êtes à votre aise.* = En G, algunos lo pronuncian PATŠARA. *Dans le G, quelques personnes prononcent* PATŠARA. (D. esp. *fachada* ?.)

Patšardo (G-and-ern-ori), sidra obtenida de la mezcla de agua con el orujo de manzanas, *cidre obtenu en jetant de l'eau sur le marc de pommes.*

Patši (Bc, G-and), **patšiko** (AN-b, BN-ald, R), **patšiku** (G-and), nombre vulgar de Francisco ó José Francisco, *nom vulgaire de François ou de Joseph-François.*

Patšika, nombre vulgar de Francisca, *nom vulgaire de Françoise.*

Patsol (G-and-ern), tablas que se ponen sobre el lagar para prensar la uva ó manzana, *madriers ou charge que l'on place sur le pressoir afin d'exprimer le jus du raisin ou des pommes.*

Patu : 1° (B-a-m-o), Var. de PATO (1°). — 2° (G ?, Izt. *Cond.* 12-3), hado, destino : *destin, destinée.* (??)

Paturri (L), clamor, *clameur.* ¿ADITZEN DITUZU OHIU ETA PATURRI HORIEK ? ¿oís esos gritos y clamores ? *entendez-vous ces cris, ces clameurs ?* (Dasc. *Atheka.* 110-18.)

Paturriaka (L), á alaridos, *à grands cris.* HAUR ERI GAIŠO BAT, PATURRIAKA, GALDU DUEN AMARI OIHUZ : un pobre niño enfermo, dando alaridos, invocando á la madre que ha perdido : *un pauvre enfant malade, à grands cris, appelant la mère qu'il a perdue.* (Dasc. *Atheka.* 126-8.)

Patz (BNc, G-and, L-ain), liendre, *lente.* Var. de PARTZ. = Algunos, por defecto de pronunciación, llaman así al orujo, « PATS. » *Quelques-uns, par défaut de prononciation, appellent ainsi le marc,* « PATS. »

Patzor (AN-b, BN-s), cachaza, pachorra : *flegme, calme.* (?)

PAU : 1° (AN-ond), un palo de pescadores, vulg. charrango, *perche de pêcheurs.* PABA DA SARIAREN KORIŠOARI LOTZEN ZAION EGUR LUZE BAT, ARRAIAREN

PISUA JASOTZEKOA; ZENBAITAN BI PAU JARTZEN DIRA: el PAU es un leño largo que se fija al corcho de la red, que sirve para levantar el peso del pescado; á veces se ponen dos: *le* PAU *est un bâton très long qui se fixe au liège du filet, et qui aide à soulever le poids du poisson; quelquefois on en pose deux.* — 2° (B-mond), caída: *pouf, chute.* (Voc. puer.)

Pau egin (B-mond), caerse: *faire pouf, se laisser choir.* (Voc. puer.)

Pauma (BN, Sal.), pavo real, *paon.* (??)

Paupaka (R-bid), cayendo copos, *tombant à flocons.* ORAI BEREAN DAGO ELURRA PAUPAKA, ahora mismo está nevando á copos, *maintenant même il neige à flocons.*

Pausa (AN-b, L), reposo, *repos.* (??) ZURE ETŠEA, EGON ETA IBILI ZAREN LEKHU GUZTIETAN IZATU DU EUSKALDUNEN ETŠEA, PAUSA-LEKHUA ETA PORTUA: vuestra casa, dondequiera que habéis estado y andado, ha sido casa de reposo y puerto de los Vascos: *votre maison, n'importe où vous êtes allé, a été une maison de repos et le refuge des Basques.* (Ax. 3a-XIV-14.)

Pausagabe (AN-b, L), inquieto, turbulento: *taquin, turbulent.*

Pausagune, descansadero, *reposoir.* (Oih. *ms.*)

Pausaldi (AN-b, L), reposo, *repos.*

Pausaleku (AN-b): 1° descansadero, *reposoir.* — 2° apeadero, *pied-à-terre.*

Pausarazi (AN-b, L), hacer reposar, *faire reposer.*

Pausatu: 1° (BN, L, R, S), reposar, *reposer.* ITZALPEAN, KANABERAREN ESTALGUNEAN ETA GERIZAN EGITEN DU BERE LOA, HAN PAUSATZEN DU: á la sombra, bajo cubierta y refugio de cañaveral duerme, allí descansa: *à l'ombre, sous le couvert et le refuge d'une cannaie, là il repose.* (Ax. 3a-18-19.) — 2° (AN, BN, L, S), posarse un pájaro, ave: *se percher* (*un oiseau, un volatile*).

Pausazale (BN-am-gar), colocador de los ladrillos ó tejas, *celui qui range les briques ou les tuiles.*

PAUSTEL (B-tš), gordinflón, fofo: *obèse, gros, enflé.*

PAUSU: 1° (AN-b), pasadera, paso de piedras en un arroyo: *pas, suite de pierres placées dans un ruisseau pour en faciliter le passage.* — 2° (AN-b), escalones para franquear un muro, *échelons pour franchir un mur.* — 3° (BN-luz), estación del vía crucis, *station du chemin de la croix.* (?) — 4° (AN, BN, L), reposo, *pause.* (??)

PAUTA (B-m), escrófula ó lamparón, *scrofule ou écrouelles.*

Pauta-pauta (B-g-l, ...), onomat. del acto de fumar en pipa, *onomat. de l'action de fumer la pipe.*

PAUTS: 1° (B, Añ.), moflete, papo: *pommette, grosse joue.* (D. esp. *fauces?.*) — 2° (B-a-ar-tš), espiga de maíz podrida, *épi de maïs pourri.* — 3° (B-l), gordinflón: *obèse, replet.*

PAZ (G, Araq.), medalla, *médaille.* (D. lat. *pax?.*)

PAZI (AN-lez-oy, G-and-don-etš-zeg), caldera, *chaudière.* ETA EGINGO DITUZU ALDAREAREN BEARRETARAKO PAZI BATZUEK AUTSAK BILTZEKO, y harás también para servicio del altar unas calderas para recoger las cenizas, *tu feras pour le service de l'autel des chaudières pour recueillir les cendres.* (Ur. *Ex.* XXVII-3.)

Pazigile (G-zeg), calderero, *chaudronnier.*

Paziña (AN-b, L), caldera, *chaudière.*

PAZOTA (BN-ald, L-s), estaca: *pieu, piquet.* (?)

PAZPI (B-o-tš), liendre, *lente.*

PAZTANGA (Bc, G), pez semejante á la raya, más dañino, siendo muy dura la espina de su aleta caudal; vulg. chuchu: *mastrame, poisson ressemblant à la raie, plus nuisible; il possède une épine très dure à la nageoire caudale.*

PE: 1° (AN, R, S), bajo, parte baja: *sous, partie basse.* PETIK IGAN DÜZÜ (S), ha subido de abajo, *il est monté d'en bas.* BI URTEZ PEKO (R, S), (niño) de ménos de dos años, (*enfant*) *de moins de deux ans.* — 2° (R, S), suelo, *sol.*

-Pe (c), es el mismo sufijo -BE que denota parte baja: *c'est le même suffixe* -BE, *qui dénote la partie basse.* LURPETIK, por (ó desde) debajo de tierra, *par* (*ou de*) *dessous la terre.* (*Per. Ab.* 94-25.) AGINDUPEKO, súbdito, *sujet.* (*Olg.* 42-6.) JANGOIKOAREN PEAN (B, *ms*-Otš), con la gracia de Dios, *avec la grâce de Dieu.* = Puede verse, en los prenotandos de la letra **P**, cómo este sufijo ha perdido su carácter eufónico originario y vive hoy de la arbitrariedad. *On peut voir, dans les préliminaires de la lettre* **P**, *comment ce suffixe a perdu son caractère euphonique originaire et qu'aujourd'hui l'arbitraire est sa seule raison d'être.*

PEAKATULU (BN): 1° pedacito de cuero ó de paño de que se hace uso para sacar hilos sin dañarse los dedos: *petit morceau de cuir ou d'étoffe, qu'on prend pour tirer les fils sans se blesser les doigts.* — 2° epíteto despreciativo, *épithète de mépris.* GIZON PEAKATULUA, hombrecillo insignificante, *hommelet insignifiant.*

Pear (BNc, ...), Contr. de PEDAR.

Peasare (G-zeg), cesto que se lleva al hombro, *panier qu'on porte sur l'épaule.*

PEBRE (BN-s), trébede, tartera de hierro con tres pies, *tourtière en fer à trois pieds.*

PEDAR (AN-arak-lez-oy, Bc), cántaro, *cruche.*

Pedašakatu (Duv.): 1° remendar, *raccommoder.* — 2° arreglar un asunto, *arranger une affaire.*

Pedašatu (L). (V. **Pedašakatu**, 1°.)

Pedašatzaile (Duv. *ms*): 1° el que remienda, *raccommodeur.* — 2° el que arregla un asunto, *celui qui arrange une affaire.*

Pedašu (L), pedazo, remiendo: *morceau, pièce.* (D. esp. *pedazo?.*) ALDAGARRI ZAHARRARI NIHORK EZ AHAL DIO OIHAL BERRIZKO PEDAŠURIK EMATEN, y ninguno echa remiendo de paño recio en vestido viejo, *personne ne met une pièce d'étoffe neuve à un vieux vêtement.* (Duv. *Matth.* IX-16.)

Pedatšatu (BN, Sal.), remendar, *rapiécer.* Var. de PEDAŠATU.

Pedatšu (BN, Sal.), remiendo, *pièce.* (?)

PEDOI (BN-ald-am-gar), machete, *coutelas.*

PEDUKO (BN-s, R), chapín: *escarpin, chausson.*

Pegaki (G-bet-gai), tableta con mango en el centro, que sirve para recoger broza, escoria, etc.: *planchette munie d'un manche au milieu, et qui sert à ramasser les broutilles, les scories, etc.*

Pegar (AN, BN, G, L, S), cántaro, *cruche.* Var. de PEDAR. BEERATU EZAZU ZURE PEGARRA EDAN DEZADAN, abaja tu cántaro para que beba, *penche ta cruche pour que je boive.* (Ur. *Gen.* XXIV-14.)

Pegar-egile (AN, L), cantarero, *potier.*

Pegartegi (AN, L), sitio de la cocina donde se colocan los cántaros, *endroit de la cuisine où l'on place les cruches.*

Pegartei (BN, S), vertedero de aguas en una cocina, *évier par où l'on verse les eaux de la cuisine.*

Pegaza (G), variedad de manzana de color de canela, dulce, buena para hacer sidra: *variété de pomme de couleur cannelle, douce, bonne à faire du cidre.*

Pegesa, pegeseria (BN, S), bagatela, *bagatelle.* (??) (D. bearn. *pegues.*)

PEGOR (BN-haz-ist), infecundo, pobre: *infécond, pauvre.* LANDA PEGOR BAT: un campo infecundo, poco fértil: *un champ maigre, peu fertile.*

Pegorreria (BN, Sal.), miseria, *misère.*

Pegorritate (BN-ist), miseria extrema, *misère noire.* PEGORRITATEAN DIRA JENDE HORIEK, esas gentes están en extrema miseria, *ces gens sont dans une misère noire.*

PEIA: 1° (Sc), galga del carro, tabla que en cuestas abajo disminuye su velocidad: *frein de la charrette, planche qui ralentit la vitesse dans les descentes.* — 2° **Pheia**, trabas, grillos, maniotas: *entraves, menottes.* (Oih. *ms.*) — 3° (?), pilar, columna: *pilier, colonne.* HAN DAUDE TENTE PHEYA EDO KOLONA BATZU BEZALA, allí están de pie como pilares ó columnas, *ils sont là debout comme des piliers ou des colonnes.* (Etcheb. I.)

Pheiatu: 1° (BN, Sal.), trabar las caballerías, *entraver des chevaux.* — 2° (BN), maniatar, poner el grillete, *mettre les menottes.*

Peila (R-bid), bróculi, variedad de berza: *brocoli, variété de choux.*

PEILO: 1° (AN, L, G), nombre vulgar de Pedro: *Pierrot, nom vulgaire de Pierre.* = Debe de ser su diminutivo. *Ce doit être son diminutif.* — 2° (BN, L, S), tonto, bobo: *nigaud, benêt.*

Peilokeria (BN, L, S), bobería, necedad: *bêtise, niaiserie.*

PEILOT (S), persona sin iniciativa, *personne sans initiative.* (D. bearn?.)

Peilotu, hacerse bobo, tonto: *devenir sot, niais.* (Duv. *ms.*)

PHEIRA (Sc), obstáculos que encuentra el carro para andar, *obstacles que la charrette rencontre dans sa marche.*

PEITA (G-deb, L-get, ...), carnada ó cebo para coger peces, *appât ou amorce pour prendre le poisson.* Var. de BEITA.

PEITU (BN?): 1° falta, carencia: *manque, défaut.* PEITU IZAN: faltar, tener falta: *manquer, faire faute.* BIHIA PEITU DEN ETŠEKO GAUZA GUZIAK DIRA SALTZEKO, están de venta todos los enseres de una casa en que falta el grano, *tout est à vendre dans la maison où la provision de grains manque.* (Oih. *Prov.* 100.) — 2° falto, desprovisto: *dénué, dépourvu.* GIZON BIZAR-PEITUTI ETA EMAZTE BIZARTSUTI IHES EGIK NOLA KHOZUTI, de hombre

imberbe y de mujer barbuda huye como de la peste : *prends garde d'un homme barbu et d'une femme barbue, et fuis-les comme la peste.* (Oih. *Prov.* 193.) — 3° bajar, disminuir, faltar, desprender : *baisser, diminuer, manquer, se détacher.* ¿ZER PROFEITU, BALIN PEITU BAZARA ZU NIGANA? ¿qué provecho (tengo yo de amarte), si tú te has desprendido de mí? *quel profit (ai-je de t'aimer), si tu te détaches de moi?* (Oih. 103-12.)

Peitutasun (BN), escasez, indigencia : *pénurie, indigence.* ZUEN ABUNDANZIAK SUPLI BEZA HAIEN PEITUTASUNA, supla vuestra abundancia la indigencia de aquellos, *que votre abondance supplée à l'indigence de ceux-là.* (Leiz. *Cor.* VIII-13.)

PEKA : 1° (Bc, Gc, R-uzt), peca : *tache, rousseur.* (?) — 2° (B?), desmonte, *nivellement d'un terrain incliné.* — 3° (S), indet. de PHEKATÜ, aventurarse, *se hasarder.* PHEKA BALEKIZU (S, *Sen Grat*, 3-9), si os aventurárais, *si vous vous avisiez (de faire quelque chose).*

Pekada (AN-b, BN-haz), becada, *bécasse.* (??) PEKADA BEZEN GORRA : sordo como la becada, muy sordo : *sourd comme la bécasse, excessivement sourd.*

Pekarazi, hacer sufrir en castigo de una falta ó por venganza, *faire souffrir en punition d'une faute ou par vengeance.* (Duv.)

PEKART (S), becaza, *bécassine.*

Pekatsu (B-a-m), pecoso : *rousselet, qui a des rousseurs au visage.* (??)

PEKATU : 1° (B, G), pecado, *péché.* (??) — 2° (BN-haz, Lc), soportar las consecuencias de palabras ó de hechos ejecutados por sí ó por otro, expiarlas : *subir les conséquences de paroles ou d'actes accomplis par soi ou par un autre, les expier.* BERE HAURKERIA PEKATZEN DU ORAI, ahora sufre su puerilidad, *il subit maintenant les conséquences de son enfantillage.* HUTSA ZUK EGIN DUZU ETA NIK BEHAR DUT PEKATU (BN-haz) : usted ha faltado, y yo debo responder de sus faltas : *c'est vous qui avez commis la faute, et c'est moi qui dois en supporter les conséquences.* — 3° **Phekatü** (S), atreverse, aventurarse : *se risquer, se hasarder.* DONA MARIAREN AITZINEAN AHAPETI BAIZI EZTAKIOLA PHEKA ELHESTATZEA, que delante de santa María no se atreva á hablar no siendo en voz baja, *que devant sainte Marie il n'ose parler qu'à voix basse.* (*Sen Grat*, 21-13.) PHEKATÜ ZIOZU ENE GAIZEN HARTZEA (S), se ha atrevido á coger mis cosas, *il a osé prendre mes affaires.*

Pekatzaile, responsable, el que sufre por una falta, por un error ó en venganza de algún acto : *celui qui est victime d'une faute, d'une erreur ou de la vengeance.* (Duv. *ms.*)

Pekazto (Bc, ...), pecoso, *rousselet.*

Peketaka (BN), á manojos, por haces : *à poignées, par gerbes.*

Peko : 1° (AN, BN, S), súbdito, *sujet.* EZIK NAHIZ ERE EZ NIZAN NIHAU BERTZE GIZON BATI OBEDITZEKO BEZIK, BADITUT HALERE SOLDADUAK ENE PEKO, ETA ERRAITEN DAKOT BATI (BN) : pues también yo soy hombre sujeto á otro, que tengo soldados á mis órdenes, y digo á este : *car moi qui suis soumis à des supérieurs, j'ai des soldats sous mes ordres, et je dis à l'un.* (*Matth.* VIII-9.) ASTEGUNEZ BERE PEKO GÜZIER ALGARREKI, en los días de labor á todos sus súbditos juntos, *dans les jours de travail à tous ses sujets réunis.* (*Catech.* 27-2.) ERREGEEN ERAN BIZI ZIRAN ORILEN PEKOAK, á semejanza de los reyes vivían sus súbditos, *les sujets des rois vivaient semblables à eux.* (Mend. I-153-20.) — 2° (G?, Ubil.), esclavo, *esclave.* — 3° (B-a-g-l-mu), recelo, sospecha, *soupçon.* EGIN IZAN DOZUN SUSMA DEUNGEARI EDO BURUAK EKARRI IZAN DEUTSUN PEKO TŠARRARI ARIN TA BETE-BETEAN SINISTEA EMON DEUTSAZUNEZ, si habéis dado crédito pronto y completamente á la mala sospecha que habéis formado ó al funesto recelo que os ha sugerido la imaginación, *si vous avez donné créance promptement et complètement au mauvais soupçon que vous avez formé ou à la funeste idée que votre imagination vous a suggérée.* (Añ. *Esku-lib.* 131-10.) PEKO GAIZTOA DEUKOT, ETORRI JOATAN GATŠA JATORDALA ASE-OSTEKO LOA : mala sospecha le tengo, que el mal que me suele venir me viene del sueño después de la hartura : *je suppose, à tort, que le mal qui me vient ordinairement provient du sommeil après le rassasiement.* (*Refranes*, 427.) = Este proverbio parece incompleto. *Ce proverbe semble incomplet.* — 4° (AN-arak-oy, B-a-eib-l-m-mu, G-iz), cuidado, cargo, patrocinio : *soin, obligation, charge, protection.* ¿NOK EGON BEAR DAU EGUZKIAREN PEKOAN LEGEZ, OETIK URTETEKO? ¿quién debe estar como al cuidado del sol, para salir de la cama? *qui doit rester comme à la charge du soleil, pour sortir du lit?* (*Per. Ab.* 116-11.) ONEN ARTEAN ZAN EKANDUA ORDUAN, MUTILTŠU ASKO IMINTEA IRAKASLE BATEN PEKOAN, ALKARREGAZ AZI ZITEZEN : había entre estos la costumbre de poner á muchos jóvenes al cuidado de un profesor, para que se criaran juntos : *il existait chez eux la coutume de confier beaucoup de jeunes gens aux soins d'un professeur, afin qu'ils fussent élevés ensemble.* (*Per. Ab.* 217-10.) — 5° (AN-b, R-uzt), de ménos, *de moins.* BI URTEZ PEKO AURRA (R), niño de ménos de dos años, *enfant de moins de deux ans.*

Pekorotz (B, G), fiemo, bóñiga : *fiente, bouse.* = De BEI + KOROTZ, escremento de vaca, *bouse de vache.*

Pekoroztau (B-m), destrozar, lit. : reducir á bóñiga : *écrabouiller (pop.), détruire, lit. : réduire en bouse.* = Es palabra muy vulgar. *C'est un mot très vulgaire.*

Pekotu (AN, BN), subordinar, poner bajo las órdenes : *subordonner, placer sous les ordres.*

Pekunpet (BN-ist), cara á cara, *tête à tête.* (?) PEKUNPET ELHEKETA ARI ZIREN, hablaban cara á cara, *ils causaient en tête à tête.*

PHELA (BN-haz), gran pedazo, *grosse tranche.* GASNA-PHELA, gran pedazo de queso, *grosse tranche de fromage.*

Pela (BN-s), pella, pelotilla : *balle, ballotte.* (??)

Pelaka (Sc), se dice que andan así los bueyes uncidos que, separando mucho las patas, se estrechan para rehuir la carga : *se dit des bœufs enjugués, qui marchent en écartant les pieds et en se serrant pour esquiver la charge.*

Pelakatu (AN-b, L-get). (V. **Pelatu.**)

Pelaki (G), tableta con mango en el centro, que sirve para recoger broza, escoria y otras cosas : *sorte de râteau composé d'une tablette traversée d'un manche et qui sert à ramasser les broutilles, les scories.* Var. de BELAIKI.

PELAMU (BN-gar), foso en que se colocan los cueros con tanino, *fosse dans laquelle on met les cuirs et le tan.*

Pelapat : 1° (G), un bledo, un céntimo, cuadrante : *un rien, un centime, un liard.* (Contr. de PELAT BAT.) EZTUTE BALIO IZAN PELAPAT, no han valido un ardite, *ils n'ont pas valu un liard.* (Izt. *Cond.* 15-20.) — 2° (S), un sopapo, *une tape.* (?)

Pelaskatu (B), pelear, *battre.* OIŢAR BI PELASKATUAK, dos gallos (que han) peleado, *deux coqs (qui se sont) battus.* (*ms*-Zab. *Ipuiñ.* XXVI.)

PELAT (AN, BN, G), cuadrante, *liard.* EGIAZ ERRAITEN DRAUAT, EZAIZ ILKIREN HANDIK, BENDA DIROANO AZKEN PELATA : en verdad te digo, que no saldrás de allí, hasta que pagues el último cuadrante : *en vérité, je te le dis, tu n'en sortiras pas que tu n'aies payé jusqu'à la dernière obole.* (Leiz. *Matth.* V-26.)

PELATŠ : 1° (BN), manzana pequeña, rojiblanca, compacta y azucarada : *pomme d'api, espèce de petite pomme, rouge et blanche, ferme et sucrée.* — 2° (L-ain), gavilán, *épervier.* Var. de BELATŠ.

Pelatu (AN, BN, Sal., L, Sc), calarse, mojarse hasta los huesos : *se tremper, se mouiller jusqu'aux os.* BUSTI-PELATU (BN-gar, L, ...), calarse, *se tremper.*

Pelatu, volverse tonto, *devenir sot.* (Duv. *ms.*)

PHELDO (BN, Sal., Lc), menta, mastranzo nevado, *menthe.* (Bot.)

Peleburu (B-a, Añ.), peligro, *péril.* (??) ZEURE BURUA ILTEKO PELEBURUAN IMINI DOZUNEZ, si os habéis expuesto á peligro de muerte, *si vous vous êtes exposé au péril de la mort.* (Añ. *Esku-lib.* 123-14.)

PELENDA (AN-b), mujer desaliñada, *femme souillon.*

Pelendengo (BN-s), zarcillo, pendiente : *boucles d'oreilles, pendants d'oreilles.* ¿ZUREA ŠU PELENDENGO KAUR? ¿este zarcillo es de usted? *cette boucle d'oreilles est-elle à vous?*

Pelkar, áspero, quebrado : *raboteux, accidenté.* (S. P.) BIDE PELKARRA, camino quebrado, *chemin accidenté.*

PELO (G-and), pezuña del ganado caballar, *sabot des animaux de l'espèce chevaline.* = AZKAZAL es la pezuña del ganado vacuno. AZKAZAL *est le sabot du bétail à cornes.*

PELOŠA (AN, Araq.), silvestre, *sauvage.*

PELOTA : 1° (B, G, Sc), pelota, *pelote.* (?) ELUR-PELOTA (R-uzt), avalancha de nieve, *avalanche de neige.* — 2° (Sc), acerico ó almohadilla de costura, *pelote des couturières.*

Pelotaka : 1° (B-l, ...), partido de pelota, *partie de pelote.* PELOTAKA ESTUAGORIK EZIN IZAN LEIKE, partido más competido no puede darse, *il ne peut y avoir de partie plus disputée.* — 2° (Bc, ..., G), jugar á la pelota, *jouer à la pelote.*

Pelotaleku (B, G), frontón en que se juega á la pelota, *fronton contre lequel on joue à la pelote.*

Pelotari (B, G), jugador de pelota, *joueur de pelote.*

Pelotatoki (B, G), frontón en que se juega á la pelota, *fronton contre lequel on joue à la pelote.*

Pelut, de pura sangre, en oposición á siervo, esclavo, gitano, etc. : *franc, de sang pur, en opposition avec serf, esclave, bohémien, etc.* (Duv. *ms.*)

Pelutasun, cualidad del hombre de sangre limpia, *qualité de l'homme de sang pur.* (Duv. *ms.*)

-Pen (c), sufijo derivativo de nombre verbal, que significa acto : *suffixe dérivatif des noms verbaux, qui signifie l'action.* Erospen (c), compra, *achat.* Irakaspen, enseñanza, *enseignement.* (Joan. *Saind.* 1-16-31.) Iraupen, duración, *durée.* (*Per. Ab.* 207-21.) Luzapen, demora, *retard.* (Ur. *Gen.* XLIII-10.) Oroipen (AN-arak-oy, G), recuerdo, *souvenir.* Salpen, venta, *vente.* (Duv. *Labor.* 41-14.)

PHENDAITZ (BN, Sal.), roca que presenta una punta avanzada, *rocher présentant une pointe avancée.*

Pendenta (S, Alth.), pendientes, fuchsia, *fuchsia.* (?) (Bot.)

PENDIZ : 1° (B, G), cuesta pendiente, *côte rapide.* — 2° (B-tS̃, arc), balcón, *balcon.* — 3° (AN-lez), glorieta de jardines, *tonnelle ou kiosque de jardin.* — 4° (G-ber), gran montón de piedra, *gros tas de pierres.* — 5° (B-i), planicie sobre un precipicio, *plateau surplombant un précipice.*

PENDOITZ : 1° (AN, BN-ald-gar), precipicio, *précipice.* — 2° (AN-b-lez, BN-ald, L-ain), cuesta pendiente, *côte rapide.* — 3° (BN?, L?), collado, *monticule.* Israelgo semeak eztute beren sinhestea ez lantzetan ez gezietan ; bainan mendiek maldatzen dituzte, eta erroizuak bezalako pendoitz batzuek ematen diote beren indarra : los hijos de Israel no tienen la confianza en lanzas, ni en flechas, sino que su defensa y fortificaciones son los montes y los collados escarpados : *les enfants d'Israël n'ont confiance ni dans leurs lances ni dans leurs flèches ; mais ces montagnes les défendent, et ces collines suspendues sur des précipices font leur force.* (Duv. *Jud.* VII-8.) — 4° (AN-b), talud entre dos terrenos de diferente nivel, *talus entre deux terrains de niveau différent.*

PENDOKA (G-gab, L-ain), terreno costanero, *terrain en pente.*

Pendola-zulo (G-and), agujero central del yugo, *trou central du joug.*

PENDUL (B-l), sonda, *sonde.* (?)

Pendularri (B-ond), cantos rodados, *galets.* (D. esp. *péndulo*?.)

PENELAI, pequeña moneda que envía una persona á otra en señal de recuerdo y de amistad ; esta moneda habiendo desaparecido, se envía hoy una avellana ó una nuez de tres ventallas : *petite monnaie qu'une personne adressait à une autre en signe de souvenir et d'amitié ; cette monnaie ayant disparu, on envoie aujourd'hui une noisette ou une noix à trois divisions.* (S. P.)

Penka (?), toda la manteca de un lado del cerdo, *toute la graisse ou panne d'un côté du porc.*

PENTOKA (BN, L), cerro, colinita : *butte, éminence.*

PENTZAI (B?), refugio, *refuge.*

Pentzatu (BN), ir ó llevar á la pradera, *aller ou mener à la prairie.*

PENTZE (AN, BNc), pradera, terreno para pastos : *prairie, terrain à pâturages.*

Pentzetsu, abundante en praderas, *abondant en prairies.* (Duv. *ms.*)

PENTZU (B-a-mu-o-tS̃), cuidado, patrocinio, confianza : *soin, protection, confiance.* Orretsen pentzutan, á cargo de ese mismo, *aux soins de celui-là même.* Iñoren pentzutan egon, estar á cargo de otro, *être à la charge d'un autre.*

Pentzuda (B, Mog.), Var. de pentzu. ¿Etzinean bart etzun nire pentzudan edo nik iratzartuko zendudazalako uste osoan? ¿no os acostasteis anoche amparado á mí, ó en la plena confianza de que os había de despertar? *ne vous êtes-vous pas couché hier soir en comptant sur moi, ou dans la pleine confiance que je devais vous réveiller?* (*Per. Ab.* 116-18.)

Pentzutara (B-d), á merced, *à la merci.* Ainbat tsakur orain-artean, ta baten pentzutara geratu gara oraiñ : hasta ahora teníamos tantos perros, y ahora nos hemos quedado á merced de uno : *jusqu'ici nous avions tant de chiens, et maintenant nous sommes réduits à la merci d'un seul.*

Pentzutu (B-m, ...), fiarse, confiar : *se fier, avoir confiance.*

Peñuskal (R-uzt), despeñadero, *précipice.* (D. esp. *peñascal*?.)

Phenze (BN, Sal.), Var. de pentze.

Penzuda (G), confianza, *confiance.* Var. de pentzuda. Asuerok bere penzudea edo konfianza guzia etsairik gaiztoenean zeukan, Asuero tenía su confianza en el enemigo más malo, *Assuérus mettait sa confiance dans l'ennemi le plus méchant.* (Lard. *Test.* 342-26.)

PEOKA (Sc), paja de maíz, *paille de maïs.*

PEON : 1° (L-ain), contrabandista, *contrebandier.* — 2° (AN-b, L), peón, *manœuvre.* (??)

Peontza : 1° (L-ain), oficio de contrabandista, *métier de contrebandier.* — 2° (AN, Bc, L), oficio de peón, *métier de manœuvre.* Gure mutila itsasorako gauza ez ta peontzan sartu dogu (B-l) : á nuestro muchacho, como no vale para la mar, le hemos metido de peón : *comme notre garçon n'est pas bon pour naviguer, nous l'avons mis manœuvre.*

Peraiki (G-and), palo largo de labradores, de carboneros, con una tabla al remate : *long râteau fait d'une planche, dont se servent les laboureurs et les charbonniers.* Var. de pelaki, belaiki.

Peraki (AN-arak), batidor : *peigne, démêloir.*

Perar (B-mu), cántaro, *cruche.* Var. de pedar.

Peratu (AN, BN, S), deponer, descender : *déposer, descendre.*

Peraza (G), variedad de manzana, *variété de pomme.* (V. **Pegaza.**) = Parece variante de beragaza (B-mu), manzana blanda y dulce como lo es dicha manzana. *Ce mot semble être une variante de* beragaza (B-mu), *pomme molle et douce comme l'est celle ci-dessus désignée.*

Perbokatu (BN-bard), rebocar, blanquear, *blanchir les murs à la chaux.* (D. bearn?.)

Pherdats (BN), verduzco, *verdâtre.* Eta beha nezan eta huna zaldi pherdats bat eta haren gainean jarririk zegoenaren izena zen herioa : y miré y apareció un caballo verduzco ; y el que estaba sentado sobre él, tenía por nombre muerte : *je vis paraître un cheval de couleur verdâtre, et celui qui le montait s'appelait la mort.* (Leiz. *Apoc.* VI-8.)

Perdin (B-l), se llamaron las tarjas ó monedas de ocho maravedises, que ostentaban la inscripción « Ferdin. », abreviatura de « Ferdinandus » : *on appela ainsi les pièces de huit maravédis, qui portaient l'inscription « Ferdin. », abrégé de « Ferdinandus ».*

Perdizka (AN-arak), tambaleando, *chancelant.*

PHERDO, gorgeo ó estribillo, *fredon ou refrain.* (Oih. *ms.*)

Pereka (AN), **phereka** (BN), caricia, *caresse.*

Perekatu (AN), **pherekatu** (BNc), restregar, frotar, acariciar : *râcler, frotter, caresser.* Presuna haserrekorrak zuhaitz arantzetsuak bezala dira, eztira pherekatzeko on, nehork uki badaitza zaurtzen dute : las personas coléricas son como los árboles espinosos, no son buenos para ser acariciados, hieren á quien les toca : *les personnes irascibles sont comme les arbres épineux ; ils ne sont pas bons à caresser, ils blessent qui les touche.* (Ax. 3a-114-25.)

Peresil (BN, L, R), **pheresil** (BN-am, S), perejil, *persil.* (??)

Pherestu (BN, S), laborioso, hombre probo : *laborieux, probe, intègre.* Ni niz jente pherestier orori phakü-emailea eta deboten ororen azkarki borogazalea : yo soy el remunerador de todas las gentes de bien y el que prueba fuertemente á todas las personas devotas : *c'est moi qui récompense tous les gens de bien, et qui exerce par de fortes épreuves tous ceux qui me servent avec dévotion.* (*Imit.* 142-24.)

Peretsagarri (BN), estimable, *estimable,*

Peretsatu (BN, S), estimar, apreciar : *estimer, apprécier.*

PERETSU (BN-am, S, *Catech.* II-86-17), estima, respeto : *estime, respect.* (D. lat. *pretium*?.)

Perezil (S, Alth.), perejil, *persil.* (Bot.) (??)

Pereztu (BN, S), trabajador activo, *travailleur actif.* (D. lat. *præsto.*)

Perfosta (BN, Sal., S), sin duda, por consiguiente : *sans doute, par conséquent.* (?)

Pergamu (S, Archu), pergamino, *parchemin.* (??)

Pergario (BN-aih-lek), charlatanería, *bavardage.* (D. lat. *precaria*?.) ¡ Ze pergarioa derasan ! (BN-aih), ¡ qué charla ! lit. : ¡ qué charla habla ! *quel bavardage ! lit. : quel bavardage parle-t-il !*

Perikasant (BN-am-gar, Lc, Sc), activo y diestro, *actif et adroit.* (?)

Peritu (AN-b, L-ain), deteriorarse, caducar : *se détériorer, vieillir.* (D. lat. *perire.*) (??)

PERKAIN (B-l, G-zumay), huraño, tosco : *sauvage, rustre.*

Perkantina (BN-s), mujer aseada, *femme proprette.* (?)

PERKAS̃ : 1° (AN-arak-lez, R), diligente, cuidadoso, hacendoso : *diligent, rangé, soigneux.* — 2° (G-and-don), desvergonzado, *dévergondé.*

Perkatš (B-d-eib-m-oñ, G-ber-zeg), **perkatz** (B-a-tš), persona esbelta, diligente, cuidadosa, hacendosa : *personne*

diligente, soigneuse, agissante. Var. de PERKAŠ (1°).

PERKOŠ (R), rendido, muy cansado: *rendu, harassé, éreinté.*

Perkoštu (R), rendirse de cansancio, *se harasser de fatigue.*

PERLANGA (B-bed, L), tablones que se ponen sobre las presas para hacer más provisión de agua, *madriers qu'on met au-dessus des digues afin de retenir une plus grande quantité d'eau.*

PERLOE, perloi (Bc, Gc), **perloin** (L), perlón, un pez marino como de veinte centímetros, de ojos grandes y baboso: *perlon, poisson de mer mesurant environ vingt centimètres, du genre trigle.* (??)

PERLUŠ (BN-am), remolino de viento, *tourbillon de vent.*

PERLUT (AN-b), de pura sangre, *pur sang.*

Permadura (AN, L), esfuerzo, *effort.* HEK GUZTIAK LOTARIK IRATZARRI NAHI ZUENAREN ENSEYU ETA PERMADURA FLAKO BATZUK BEZALA ZIREN, todas aquellas cosas eran como débiles ensayos y esfuerzos de uno que quería despertarse del sueño, *toutes ces choses étaient comme les débiles essais et les efforts de quelqu'un qui voudrait se réveiller.* (Ax. 3ª-26-25.)

Permagune (L), esfuerzo, *effort.* IDURI DU ZERUAK, PERMAGUNE BORTITZ BATEAN, HIGATU DUELA BERE HASARREDURAREN HEDADURA GUZIA: parece que la irritada naturaleza ha aplacado toda su cólera en un supremo esfuerzo: *il semble que la nature irritée ait, dans un effort suprême, épuisé toute sa colère.* (Dasc. *Atheka.* 79-16.)

Permantza, esfuerzo, *effort.* (*Rev. Eusk.* I, p. 7.)

Permatu (AN-b, L,...), esforzarse, *s'efforcer.* (?) BEHAR DUGU GEUREINDAR GUZTIAZ ETA ANTZEAZ PERMATU, debemos esforzarnos con toda nuestra fuerza y destreza, *nous devons nous efforcer de toute notre force et adresse.* (Ax. 3ª-24-13.)

Permentin (R), trementina, *térébenthine.* (??)

Pernazkaka (R), retozando, brincando: *folâtrant, gambadant.*

PEROKA (S), paja de maíz, *paille de maïs.*

Peroš (B-mañ), persona de aspecto débil, enclenque: *personne d'aspect débile, exténué.*

PEROZ (B-a-l-m-mu-tš), disipado, sublevado: *dissipé, soulevé.*

Peroztu (B, ...), enardecer, sublevar, disipar: *enhardir, soulever, dissiper.* JANEDANAK PEROZTUTA BIZI DIRA ONEK, estos viven enardecidos á consecuencia de lo que comen y beben, *ceux-ci sont enhardis par ce qu'ils mangent et boivent.*

Perpausa (L?), conversación, conferencia?: *conversation, conférence?.* EGUN BATEZ, EUSKALDUNIK BAIZEN ETZEN LEKHUAN NENGOELA, EKHARRI ZUEN SOLHASAK, IZAN ZEN PERPAUSA: ETZUELA DEUSEK ERE HANBAT KALTE EGITEN: un día, estando yo donde no había más que Vascos, recayó la conversación, hubo conferencia (acerca de) que nada hacía tanto daño: *un jour, me trouvant dans un lieu où il n'y avait que des Basques, la conversation tomba, il y eut une conférence (sur ce) que rien ne faisait tant de dégât.* (Ax. 3ª-XIX-4.)

Perra (B, G), herradura: *ferrure, fer à cheval.* (??)

PERRAIL: 1° (G-don-t), balde ó gamella de albañiles, *seau ou auge de maçons.* (?) — 2° (G), herrada, *seau.* (?)

Perraitz (*ms*-Lond), perifollo, *cerfeuil.* (Bot.)

Perraol (AN-arak), pala de madera que sirve para aplastar y amoldar panes delgados de maíz, *pelle en bois pour aplatir et donner la forme aux galettes de maïs.*

Perrasil (R), perejil, *persil.* (Bot.)

PERRATŠ: 1° (AN-arak, G-t-us), vilorto, porra que se usa en el juego de la vilorta, *sorte de massue dont on se sert pour jouer à la « vilorta ».* PERRATŠEAN (AN, G): (jugar) á la vilorta, lanzar por el aire una bola de madera, valiéndose de una porra: (*jouer*) *à la « vilorta », lancer en l'air une boule de bois en se servant d'une massue.* — 2° (G-ber), trompo, juguete de niños: *toupie, jouet enfantin.*

Perratzaile (B, G), herrador, *maréchal-ferrant.*

PERRAU (B, arc), ermitaño, *ermite.* = Tal vez sea errata de PARRAU. Véase esta palabra. *Peut-être est-ce un erratum de* PARRAU. *Voir ce mot.*

Perraul (AN), Var. de PERRAOL.

Perrauntzi (AN-arez), bacineta, *gobelet.*

Perreka (L), harapo, *guenille.* JENDE PERREKA, gente inútil: *vauriens, gens sans aveu.*

Perresil (B, G), **pherresil** (BN-aldgar-s), **perrešil** (AN-b), perejil, *persil.*

PERRESTUPE (B, Mog.), tomento, estopa basta: *bourre, étoupe de mauvaise qualité.* TŠUT, TŠUT, LATZA DAGO: GIŁI-GIŁI EGITEN DEUST. ¿ZEZAZKOA DA? ¿PERRESTUPEZKOA, EDO KIRRU SAMURREZ EGINIKO EUNETI ATEREA? ¡ay! ay! está áspera (la camisa); me produce cosquillas. ¿De que es? ¿De tomento ó bien está sacada de un lienzo hecho de tierno cerro? *aïe! aïe! elle est dure (la chemise); elle me chatouille. En quoi est-elle? De bourre, ou est-elle tirée d'un tissu de lin moelleux?* (*Per. Ab.* 117-21.)

Perret (L), verraco, *verrat.* (??)

Pherreta (L), herrada, *seau.* (??) HUNA HIRIAN SARTZEN ZARETELARIK, BATHUKO ZAITZUE GIZON BAT, PHERRETA BAT UR DARAMALA: luego que entréis en la ciudad, encontraréis un hombre que lleva un cántaro de agua: *en entrant dans la ville, vous rencontrerez un homme portant une cruche d'eau.* (Har. *Luc.* XXII-10.)

PERRETŠIKO: 1° (AN-arak-lez, Bc, Gc), seta, *champignon.* = Nombres de diversas especies de setas, *noms de diverses sortes de champignons: a*) AMOROTO (B), setas grandes que nacen blancas y á medida que crecen se enrojecen, *grands champignons qui naissent blancs et deviennent rouges en se développant.* — *b*) ARRAULTZEKO, ARRAUNTZEKO (B-o), ARRAUTZA-PERRETŠIKO (B-l-m): « amanita cæsarea, » seta comestible y muy estimada. Antes de salir de la volva aparece en forma de huevo; lo cual ha dado, sin duda, lugar al origen de la palabra, que á la letra significa « huevito »: *oronge des Césars ou oronge vraie, champignon comestible très estimé. Avant de sortir de la vulve il a la forme d'un œuf; c'est ce qui a, probablement, donné lieu à l'origine du mot, qui signifie, à la lettre, « petit œuf. »* — *c*) ASTAPUTZ (AN-b-lez, B-mond, BN-s, G-etš), PERRETŠIKO PUTZ (B), cuesco de burro, *vesse-de-loup, lycoperdon [illegible]* — *d*) [illegible] (L): « amanita ovoidea, » comestible, de sombrero redondeado, semiorbicular y después aplanado; fácil de confundir con la phalloides, que es venenosa: *amanite à étui, grisette ou grisotte, champignon comestible à chapeau arrondi, semi-orbiculaire et ensuite aplati; il est facile à confondre avec l'amanite phalloïde, qui est vénéneuse.* — *e*) [illegible]-GORRI (G-t): « psalliota campestris, » hongo campesino, comestible, de sombrero carnoso, blanco, amarillento, rojizo y hasta de color de hollín por debajo: *psalliote des champs, champignon comestible, à chapeau charnu, blanc, jaunâtre, rougeâtre et même couleur de suie par dessous.* — *f*) BEGITO (B-mond): seta muy lechosa; no es comestible: *champignon très laiteux, non comestible.* — *g*) BEI-ONDO (AN, Lacoiz.): « boletus edulis, luridus, » seta de sombrero almohadillado, aplastado en la vejez, cutícula que se puede pelar, lustrosa y con tubitos por debajo. Se puede confundir con una seta muy venenosa: *cep, oignon de loup, bolet blafard, champignon à chapeau ressemblant à un coussin; il s'aplatit en vieillissant; peau lustrée, facile à peler. On peut le confondre avec le bolet de Satan, qui est très vénéneux; mais celui-ci change de couleur à la coupure, et il est rouge en dessous.* — *h*) ERREMENTARI-ONDO (AN, G-bur): boletos venenosos; se llaman así á las setas del género boleto que no son comestibles, y cambian de color al partirlas, lit: hongo de herrero: *bolets vénéneux; on nomme ainsi les champignons du genre bolet qui sont vénéneux et changent de couleur en les rompant, lit.: champignon de serrurier.* — *i*) ERREOSATUTEKO (B-i), Var. de ASTAPUTZ. — *j*) EZNATO (B-mond-o), EZNAPERRETŠIKO (B), EZNEPERRETŠIKO (Gc, ...): « lactarius subdulcis et lactifluus, » seta comestible, de sombrero no muy carnoso, convexo, con zumo lechoso: *lactaire douceâtre, champignon comestible, à chapeau peu charnu, de forme convexe, de jus laiteux.* — *k*) GALANPERNA (B-a-d), la seta más temprana, *le champignon le plus précoce.* — *l*) GIBEL-ORI (AN, B, G), seta amarillenta comestible, *champignon jaune et comestible.* — *m*) GIBEL-URDIN (c): « russula virescens, » palometa, seta comestible y muy apreciada, de sombrero carnoso, de color no únicamente azul ó gris que indica la palabra, sino picado de blanco y verdoso: *russule verdoyante, palomet, blavet, bordet, champignon comestible très apprécié, à chapeau charnu et de couleur ni bleue ni grise, comme le mot l'indique, mais plutôt bariolé de ces deux couleurs.* — *n*) GORRINGO (B, BN, L, R, S), Var. de ARRAULTZEKO. — *o*) GULETO (B-mond), GURETO (B-oñ-urd), Var. de ARRAULTZEKO. — *p*) KARDUZIZA (AN, Lacoiz.): « pleurotus eryngii, » seta de cardo, seta de sombrero carnoso, redondeado é irregular, pardo rojizo ó leonado: *pleurote conque, oreille de chardon, berigoule, gingoule, champignon à chapeau charnu, arrondi et irrégulier, de couleur grise, rougeâtre ou jaunâtre.* — *q*) KOKOMA (BN), KUKUMA (BN): « amanita ovoidea, » seta comestible, es la misma que ASTOPITŠ: *amanite à étui, cucumelle, grisette, champignon*

